

13/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO AZAROAREN 23AN EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko azaroaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta ezohiko osoko bilkura honi ohiko bilkura bati dagokion tratamendua emateko arrazoiak azaldu ditu. Izan ere, urriari dagokion ohiko bilkura egin ez zenez, hurrengo bilkura ohiko bileretarako itundutako datara (hilabete bakoitzeko azken astearte) atzeratu nahi ez denez -2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak lehenbailehen behin-behinean onartu jendaurrean jarri behar baitira-, eta, Gabonetako oporrenetatik, datorren osoko bilkurak ere ezohiko izaera izango duenez, Alkateak, Udaltzako osatzen duten talde politikoei hala akordatuta, ulertzen du gaurko bilkurari ohiko bilkura bati dagokion tratamendua eman behar zaiola, korporazioko kideen kontrol-eskubideak eta -eginkizunak bermatuta gera daitezen, egindako dekretuen eta Alkatetzaren ebazpenen bidez altxatutako eragozpen-txostenen kontu emanez, mozioak sartuz eta galde-erregutarako txanda emanez.

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2023ko urriaren 24ean egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- KULTURA, KIROL, GAZTERIA ETA PAREKIDETASUN ARLOETAN UDALAK EMANDAKO ZERBITZUENGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, Kultura, Kirol, Gazteria eta Parekidetasun arloetan Udalak emandako zerbitzuengatiko prezio publikoei dagokionez, zenbait egokitzapen proposatzen direla, batetik, prezio horiek eguneratzeko eta, bestetik, inguruko herrietara egokitzeko. Hala, 2023ko urriaren 24an Kultur dinamizatzailerak egindako txostenaren berri eman da, bertan jasotako prezio publikoen proposamenak irakurrita:

“...

PREZIO PUBLIKOAK:

**KULTURA, KIROLAK, GAZTERIA ETA PAREKIDETASUNA
(IKASTAROEEN KASUAN 2024-25 IKASTURTERAKO)**

KULTURA

- Herriko festetako 6 sardinen platerkada: 1 €
- Herriko festetako sagardo dastaketako edalontzia + pintxo bat: 5 €. Gainontzeko pintxoak: 1 €
- Jaietako zapia: 2 €
- Ikuskizunen sarrerak: Helduentzako emanaldietarako sarrerak 5 eurotan salduko dira, salbuespenak salbuespen. Haur ikuskizunen kasuan, 3 € hurrek, eta 5 € helduek.

KIROL IKASTAROAK

- Yoga: Astean behin 1,5 ordu 80 € hiruhilabetea; astean bitan 160 € hiruhilabetea
- Tonifikazioa: Astean bitan, 100 € hiruhilabetea
- Cycling: Astean bitan, 100 € hiruhilabetea
- Crosstraining: Astean bitan, 100 € hiruhilabetea
- Zunba: Astean bitan, 100 € hiruhilabetea
- Gimnasia 3. Adinekoentzat: Astean bitan, 90 € hiruhilabetea
- Gimnasia erritmikoa haurrentzat: Astean behin, 45 € hiruhilabetea

AHALDUNTZE TAILERRAK (PAREKIDETASUNA)

- Ahalduntze tailer guztiak 5 €

GAZTERIA

- Ikastaroak (ikasturte osokoak): Bi hilez behin izaten direnak 70 €, hilero izaten direnak 100 € eta astero izaten direnak 150 €.
- Udalekuak: 60 € 15 egun eta 100 € hilabete osoa. Familia bereko bigarren kideetik aurrera
% 15a gutxiago.

KUOTAK KOBRATZEA:

11 euro edo gehiago balio duten ikastaroak padroien bidez kobratuko dira. Kasu hauetan, hobari hauek aplikatuko dira:

HELDUENTZAKO IKASTAROETAN: Familia ugaria, gazte txartela, pentsiodunak, 65 urtez gorakoak, langabetuak eta ikasleak: %25eko deskontua

HAURRENTZAKO IKASTAROETAN: famili ugaria eta gazte txartela, %25eko deskontua.

Hauez gain, bai haurrentzako zein helduentzako ikastaroetan hobari taula hau aplikatuko zaie diru-sarrera baxuak dauzkaten familiei. Hobaria aplikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: errentaren aitortpena- agiria, edo, horren ezean, bizikidetzaren unitatean sartzen diren diru-sarreraren agiriak.

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%50	%25
1 PERTSONA	S.M.I	S.M.I + %20
2	S.M.I + %10	S.M.I + %30
3	S.M.I + %20	S.M.I + %40
4	S.M.I + %30	S.M.I + %50
5	S.M.I + %40	S.M.I + %60
6	S.M.I + %50	S.M.I + %70

...”.

Ondoren, Idazkari Kontu-hartzaileak hitza eskatu du eta azalpen batzuk zein Kultur dinamizatzailerak egindako txostenaren kontrako ondorengo eragozpenak azaldu ditu:

- Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulua xedatzen duenez, prezio publikoak zerga-izaerakoak ez diren diru-sarrera publikoak dira, udalek ezarri eta eskatu ahal izango dituztenak udal jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, edo kontraprestazio horiek jasotzen dituen udalerriaren eskumenekoak diren zerbitzuak emateagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik, betiere bi baldintza hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Zerbitzu publikoak edo administrazio-jarduerak administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak ez izatea.
 - b) Zerbitzu publikoak edo administrazio-jarduerak sektore pribatuak eman edo egin ditzakeenak izatea, partikularren jardunean edo beste edozein aginte-adierazpidetan esku-hartzerik ez dakartelako, edo indarreko araudiaren arabera udalerrien aldeko erreserba aitortuta ez duten zerbitzuak ez direlako.
- Toki-erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte toki-erakundearen eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik, baldin eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20.1.B) artikuluan zehaztutako baldintzetako bat ere gertatzen ez bada.
- Prezio publikoak aldatzeko jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, argi dago ez dela beharrezkoa ordenantza fiskal bat onartzeko jarraitutako espediente bera izapidetzea, eta, beraz, ez da beharrezkoa hasierako onarpenerako, jendaurrean jartzeko, behin betiko akordiorako eta abarrerako akordiorik.
- Prezio publikoen kasuan ere, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 50. artikulua arabera, prezio publikoak ezartzea edo aldatzea Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio.
- Aitzitik, prezio publikoak onartzeko edo aldatzeko espedientean, zerbitzuaren kostuaren eta errendimenduaren azterketa ekonomikoa sartu beharko da, zerbitzuaren finantza-estaldura egiaztatuko duena, edo, gizarte-arloko, ongintzako eta bestelako arrazoiak daudenean, interes publikoaren azpian dauden prezio publikoak egiaztatu beharko dira. 11/1989 Foru Arauaren 47. artikulua xedatzen duenez, *“prezio publikoen zenbatekoa, gutxienez, zerbitzu edo jardueraren kostuaren adinakoa izango da”*; *“bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, aurreko apartatuan jasotako mugatik beherako prezio publikoak jarri ahal izango ditu udalerriak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat”*. 2/1990 Foru Arauaren 25. artikulua eduki berdina jasotzen du, eta 26.2. artikuluan, gainera, honakoa jasotzen du: *“Prezio publikoen zenbatekoa finkatu edo aldatzeko proposamen guztietan, memoria ekonomiko-finantzarioa egin behar da prezioen zenbatekoaren justifikazioari buruz eta kostuen estaldura finantzarioaren mailari buruz”*.
- Kasu honetan ez da inolako txosten tekniko-ekonomikorik ageri.
- Memoria ekonomiko-finantzarioa ezean, Kontu-hartzailetza eta Diruzaitza honek ez du egin inolako txostenik, ez baitago prezio publiko horien gaineko espedienterik.
- Prozedura hori bete gabe ezingo dira prezio publiko horiek ezarri, ezta horiengatikoa diru-kopuruak kobratu ere.

Behin eragozpenak azalduta, Idazkari Kontu-hartzaileak esan du, Udalean bere postua hartu zuenetik, behin baino gehiagotan eskatu duela memoria ekonomiko finantzario hau prezio publikoak ezartzeko orduan, eta beti jaso duela ezezko bat teknikarien aldetik. Hala ere, eta arauaren eskakizuna gutxietsi gabe, uste du aurrerapen nahiko egin dela prezio publikoen onarpena osoko bilkuraren erabakiaren mende jartzean (lehen izapide hori ere ez zen betetzen) eta aginduzko argitalpena eta gardentasuna ematean. Orain, hurrengo urratsa teknikariei beren lana behar bezala



egiteko eskatzea izango da, eta beren eskumenen esparruan eskatzen diren tasa eta prezio publiko guzti-guztiei buruzko nahitaezko txosten ekonomiko eta finantzarioak egitea. Helburu hori Alkatearekin partekatu du eta, bere oniritziarekin eta laguntzarekin, 2024an abian jarriko dira helburu hori lortzeko behar adina urrats.

Aurrekoak entzunda, eta Idazkari Kontu-hartzaileak esandakoarekin ados, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Kultur dinamizatzailerak 2023ko urriaren 24an egindako txostenean jasotako prezio publikoak onartzea.

BIGARRENA. Erabaki hau egoitza elektronikoan, Udalaren iragarki-taulan, gardentasun-atarian eta GAO-n argitaratzea, argitalpen hori egin arte indarren jarriko ez delarik.

3.- 2023-2026 URTEETARAKO ANOETAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PLANGINTZA-TRESNA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen (2023/EAOL) 20.Bat.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, sektore publikoan sartu berri diren eta harreman mugagabea duten langileak Enplegu Publikoaren Eskaintzaren (OEP) bidez sartuko dira, 19. artikuluan Bat.e) letran jasotako organoak izan ezik, plangintza urte anitzeko esparru batean gauzatzeko.

Kontuan hartuta, halaber, 2023/EAOLen 20.Bi.4 artikulua, administrazio bakoitzari aukera ematen diona, ohiz kanpo, abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, aurreikusitako helburua betetzeko beharrezkoa den tasa espezifikoa baimentzeko; hau da, enplegu publikoaren behin-behinekotasunak ez dezala gainditu egitura-izaerako plazen ehuneko 8 bere eremu bakoitzean, betiere justifikatuta badago izan beharko duen urte anitzeko plangintza-tresnaren arabera.

Horiek horrela, eta indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenekin bat etorriz, 2023ko azaroaren 6an, Alkateak 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeke plangintza-tresna onartzeko dagokion espedientearen hasiera agindu zuen.

2023ko azaroaren 7an 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeke plangintza-tresnaren proposamena idatzi zen (Osoko Bilkura honen deialdiarekin bidalitakoa).

2023ko azaroaren 8an Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen, ondorengoa proposatuz:

“...

LEHENENGOA. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluan aurreikusitako urte anitzeko honako plangintza-tresna



hau onartzea (2023 EAOL), 2023-2026 ekitaldietan eta nahitaez bete beharrekoa izango dena.

BIGARRENA. Negoziatio-mahai orokorraren deialdia egitea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina (TREBEP) onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 36. eta 37.1.c) artikuluetan aurreikusitakoa betetzeko.

HIRUGARRENA. Onartzen den urte anitzeko plangintza-tresna udal honen egoitza elektronikoan, iragarki-taulan eta Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdunek egoki iritzitako errekursoak aurkez ditzaten.

...”.

2023ko azaroaren 13an Negoziatio Mahaiaren bilkura egin zen eta 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeko plangintza-tresnaren proposamenak aho bateko onarpena jaso zuen.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeko plangintza-tresna, espedientean jasotako edukiarekin.

BIGARRENA. Argitaratzea onartutako 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeko plangintza-tresna, udal honen egoitza elektronikoan, iragarki-taulan eta Probintziako Aldizkari Ofizialean.

4.- 2024. EKITALDIRAKO ANOETAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzaren onarpenera jartzen dira 2024. ekitaldirako Anoetako Udalerako proposatutako ondorengo Aurrekontu Orokorrak, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan oinarrituta osatutakoak:

AURREKONTUA

€

Gastuen aurrekontua kapituluka

1.	Pertsonal-gastuak	954.655,00
2.	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	1.033.335,00
3.	Finantza-gastuak	5.500,00
4.	Transferentzia korronteak	515.868,00
5.	Kreditu globala.....	20.000,00

6.	Inbertsio errealak	643.588,00
7.	Kapital transferentziak	0,00
8.	Aktibo finantzarioak	0,00
9.	Pasibo finantzarioak	190.000,00

Guztira 3.362.946,00

Sarreraren aurrekontua kapituluka

1.	Zuzeneko zergak	478.000,00
2.	Zeharkako zergak	75.000,00
3.	Tasak eta bestelako sarrerak	446.130,00
4.	Transferentzia korranteak	1.988.228,00
5.	Ondare sarrerak	16.700,00
6.	Inbertsio errealak besterentzea	358.888,00
7.	Kapital transferentziak	0,00
8.	Aktibo finantzarioak	0,00
9.	Pasibo finantzarioak	0,00

Guztira 3.362.946,00

Alkateak hitza hartu du eta Aurrekontuen puntu azpimarragarrienak azaldu ditu, 2023rako Aurrekontu Orokorren kapituluetakoz zenbatekoekin alderatuta. Hala, gastuen egoerari dagokionez, aldaketarik nabarmenena inbertsio errealekin kapituluaren dagoela azaldu du; aurreko urtekoaren aldean handitu egin da, oraingoan ahalegin handiagoa egin baita egingo diren inbertsioen zenbateko errealekin islatzeko. Bestalde, diru-sarreraren egoerari dagokionez, lehen kapituluaren nabarmen handitu da, 2024rako ordenantza fiskaletan egindako aldaketan eta eguneratzeen ondorioz. Era berean, inbertsio errealekin besterentzeari buruzko kapituluaren azpimarratu du, 2024rako handitu egin baita, Construcciones Aburuza, S.L. enpresa egiten ari den obregatik espero diren diru-sarrerak direla eta.

Jarraian, Nuria Carbonell zinegotziak, EAJ-PNV taldeko bozeramaileak, hitza hartu du eta eskerrak eman ditu Aurrekontu Orokorren gainean egindako lanketa sakonagatik, lanketa hori bere taldearekin partekatze egin den ahaleginagatik eta, orokorrean, udal langileek Aurrekontu Orokorren prestatzerakoan egindako lanagatik.

Horiek horrela, Udalbatzak aurrekontu proiektua bozkatu du eta, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2024. ekitaldirako Anoeta Udaleko Aurrekontu Orokorra behin behinean onestea, hiru milioi hirurehun eta hirurogeita bi mila bederatziehun eta berrogeita sei euroko (3.362.946,00 €) zenbatekoarekin, bai sarrera bai gastuen egoerari dagokionez, ondoko zehaztapenekin:

AURREKONTUA

		€	
<i>Gastuen aurrekontua kapituluka</i>			
1.	Pertsonal-gastuak	954.655,00	
2.	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	1.033.335,00	
3.	Finantza-gastuak	5.500,00	
4.	Transferentzia korronteak	515.868,00	
5.	Kreditu globala	20.000,00	
6.	Inbertsio errealak	643.588,00	
7.	Kapital transferentziak	0,00	
8.	Aktibo finantzarioak	0,00	
9.	Pasibo finantzarioak	190.000,00	
	Guztira		3.362.946,00

Sarreraren aurrekontua kapituluka

1.	Zuzeneko zergak	478.000,00	
2.	Zeharkako zergak	75.000,00	
3.	Tasak eta bestelako sarrerak	446.130,00	
4.	Transferentzia korronteak	1.988.228,00	
5.	Ondare sarrerak	16.700,00	
6.	Inbertsio errealak besterentzea	358.888,00	
7.	Kapital transferentziak	0,00	
8.	Aktibo finantzarioak	0,00	
9.	Pasibo finantzarioak	0,00	
	Guztira		3.362.946,00

BIGARRENA. Onartzea, halaber, 2024rako Aurrekontua Betearazteko Udal Araua.

HIRUGARRENA. Hartutako erabakiak jendaurrean ikusgai jar daitezela hamabost egun balioduneko epean. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko aukera egon dadin.

LAUGARRENA. Erabaki hauek behin betikoak bilakatuko dira, jendaurrean ikusgai dauden epean ez bada erreklamaziorik aurkezten.

5.- 2024. EKITALDIRAKO ANOETAKO UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitzea gertatutako aldaketetara, baita bere errealitate ekonomikoaren eta antolaketa-egoeraren irudi fidela ematea ere.

Anoetako Udalaren beharrak eta errealitatea aztertuta, egiaztatu da gaur egungo lanpostuen zerrenda ez dela egokitzen erakundearen eguneroko beharretara, ez dituela jasotzen berehalako beharrei aurre egiteko behar diren baliabidea, eta ez dituela islatzen erakundearen errealitate ekonomikoa, ezta antolamendukoa ere.

Horregatik guztiagatik, 2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko prozedura abian dagoela aprobetxatuz, Alkatetzak, 2023ko azaroaren 9ko probidentzia bidez, honako lanpostu hauek sortzeko, aldatzeko eta zuzentzeko espedienteari hasiera eman zion:

- Gizarte Langilearen dedikazioa % 80tik % 100era aldatzea.

- Brigadako peoiaren beste lanpostu bat sortzea, lan hitzarmendun langileentzat erreserbatutako lanpostuen artean, lanpostuen zerrendako beste peoiaren funtzio eta balorazio berdinarekin:

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK DESTINU ESPEZIF	TALDEA	ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEf DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED %.
Brigadako peoia	1	8 14.675,78	E	AB	1 23.XII.31	LO	5	100

- Ingurumen alorretako teknikariaren lanpostua sortzea, karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen artean, ondorengo balorazioarekin:

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK DESTINU ESPEZIF	TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEf DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED %.
Ingurumen alorretako	1	17 12.769,78	A2	AB	TB	3 23.XII.31	LO	2	100

teknikaria										
------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lanpostu bakoitzaren proposamena justifikatzeko, 2023ko azaroaren 9an egindako probidentzian jasotako arrazoiak laburbildu ditu.

Bestalde, azaldu du 2023ko azaroaren 13an Negoziazio Mahaiaren bilkura egin zela eta, bertan hartutako erabakien berri eman du. Horren gainean, ondorengoa azaldu du:

- Honako hauek hartu zuten parte Negoziazio Mahaiaren bilkuran: Alkatea, Egoitz Luisa Urkola, Mahaiko lehendakari gisa, Ana Eloseggi Artola lehen alkateordearen laguntzarekin; Langileen Ordezkariek, Amaia Relloso Gorostidi funtzionarioen ordezkari gisa eta Idoia Olano Goikoetxea lan-kontratuko langileen ordezkari gisa; eta LABen aldetik, Autonomia Erkidegoko erakunde sindikal adierazgarriena den aldetik, ez zen bertaratu Erakundeak izendatutako ordezkarietako bat bera ere, baina aholkulariak parte hartu zuen, hitzarekin baina botorik gabe.
- Gai-zerrendako puntu guztiak aho batez onartu ziren, alegia: 2023-2026 urteetarako Anoetako Udaleko giza baliabideak antolatzeko plangintza-tresna onartzea eta Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea, Brigadako peoi lanpostua sortzeko, Ingurumeneko alorretako teknikari lanpostua zuzentzeko eta Gizarte Langilearen jarduna igotzeko.
- Ingurumen alorretako teknikariaren lanpostu berriaren proposamenaren gainean, LABeko ordezkariaren aholkulariak bere desadostasuna adierazi zuen, bozketan parte hartu gabe.
- Langileen Ordezkariek (baita LABeko ordezkariaren aholkulariak ere, bozketarako eskubiderik gabe) Ingurumen alorretako teknikariaren funtzioak garatzea eta gehiago lantzea eskatu zuten.
- LABeko ordezkariaren aholkulariak berariazko osagarria ezarri aurretik lanpostuaren balorazioa egiteko beharra aipatu zuen, Toki Administrazioko funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan jasotzen den bezala. Idazkari Kontu-hartzaileak, Negoziazio Mahaiko idazkari gisa jarduten zuenak, aipamen hori aztertzeko konpromisoa hartu zuen, baita, hala izanez gero, lanpostuari buruzko balorazioa egitekoa ere, aipatutako artikuluko 1. zenbakian adierazitako inguruabarrak kontuan hartuta.

Horiek horrela, Negoziazio Mahaiak hala eskatuta eta Toki Administrazioko funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan jasotakoaren arabera, 2023ko azaroaren 20an, Idazkari Kontu-hartzaileak Ingurumen alorretako teknikariaren lanpostuaren balorazioa egin zuen (deialdiarekin batera bidalitakoa).

Beraz, proposatzen 2024. ekitaldirako proposatzen den Anoetako Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda ondorengoa da:

2024. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATURIKO POSTUAK

a) Gaikuntza Nazionaleko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Idazkari Kontu-hartzailea	1	A1/A2	H

b) Administrazio Orokorreko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Administrazio Orokorreko teknikaria	1	A1	H
2.- Administraria	1	C1	J
3.- Administrari laguntzailea	3	C2	H

c) Administrazio Bereziko eskala

- Azpi eskala teknikoa

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1.- Aparejadore	1	A2	H	% 100
2.- Gizarte Langilea	1	A2	H	% 80
3.- Hizkuntza normalkuntzarako teknikaria	1	A2	H	% 60
4.- Kultur Dinamizatzailea	1	A2	J	
5.- Liburutegi arduraaduna	1	C2	H	% 70

- Azpi eskala Zerbitzu Bereziak

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	C2	H

B) LAN HITZARMENDUN LANGILEAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1 Kale garbitzailea	1	E	H	
2 Eraikin garbitzailea	2	E	H	
3 Zerbitzu anitzetako peoia	1	E	BB	
4. Euskara Teknikaria	1	A2	Desagertzeaz	
5. Brigadako peoia	1	E	H	

C) ALDI BATERAKO LANALDIETARA GORDETAKO POSTUA

Ez dago

EGOERA

J: Jabetzan

BB: Behin betiko

H: Hutsik

2.- ANOETAKO UDALEKO 2024. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

A) Karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGIAK DESTINU ESPEZIF	TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEf DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED %	BALDIN. ESPEZIF
Idazkari Kontu hartz.	1	26 22.824,90	A1/A2	GN	IK	4 94.XII.31	L	1/2	100	
Administr. Orok. Teknikaria	1	21 22.778,42	A1	AO	T	4 06.II.16	LO	1	100	
Aparejadorea	1	19 24.085,88	A2	AB	TB	3 02.XII.31	LO	2	100	
Gizarte langilea	1	17 12.640,77	A2	AB	TB	3 92.XII.31	LO	2	80	
Hizkuntza Nor.tek	1	17 7.438,70	A2	AB	TB	4TG ---	LO	2	60	
Kultur dinamizat.	1	17 11.048,10	A2	AB	TB	3 00.XII.31	LO	2	100	
Administraria	1	14 17.109,40	C1	AO	AA	3 94.XII.31	LO	3	100	
Administr. Lagun.	3	11 15.589,56	C2	AO	AL	2 92.XII.31	LO	4	100	
Liburutegi ardurad	1	14 8.816,08	C1	AB	AA	3 92.XII.31	LO	3	70	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	12 19.514,88	C2	AB	ZB	2 94.XII.31	LO	4	100	% 15

B) Lan hitzarmendun langileentzat erreserbatutako lanpostuak



Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK.		BETERA	E. Tit	DED.%
		DESTINU	OSAG.		KOEF	DER. DATA			
		OSAG.	ESPEZIF						
Kale garbitzailea	1	8	14.248,36	E	1	09.XII.31	LO	5	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.248,36	E	1	92.XI..31	LO	5	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.248,36	E	1	08.XII.31	LO	5	100
Zerbitzu anitzetako peoia	1	8	14.248,36	E	1	00.XII.31	LO	5	100
Brigadako peoia	1	8	14.248,36	E	1	22.V.30	L	5	100
Euskara Teknikaria	1	17	7.438,70	A2	Desagertzeaz				

KLABEAK

TALDEA EDO ESKALA
GN GAIKUNTZA NAZIONALA

AO ADMINISTRAZIO OROKORRA

AB ADMINISTRARIO BEREZIA

AZPIESKALA

IK: IDAZKARI KONTU HARTZAILEA
T: TEKNIKARIA
TB: ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARIA
AA: ADMINISTRARIA
AL: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
ZB: ZERBITZU BEREZIAK

HORNIDURA MOTA

L LEHIAKETA
LO LEHIAKETA OPOSAKETA

ESKATUTAKO TITULUA:

TITULAZIOA

1. LIZENTZIATURA
2. UNIBERTSITATEKO DIPLOMADUNA, ARKITEKTO TEKNIKOA.
3. BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA EDO BILIOKIDEA.
4. ESKOLA GRADUATUA, LH 1.MAILA EDO BALIAKIDEA.
5. ESKOLA AGIRIA

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoeta Udaleko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen zerrendaren gainerako aldaketa proposamenak, Brigadako peoi lanpostua eta Ingurumeneko alorretako teknikari lanpostua sortzeko eta Gizarte Langilearen jarduna igotzeko.

BIGARRENA. 2024. ekitaldirako Anoeta Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda onartzea, jarraian adierazten den moduan:

X

X

X

HIRUGARRENA. Hartutako erabakiak jendaurrean ikusgai jar daitezela hamabost egun baliouduneko epean. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko aukera egon dadin.

BOSGARRENA. Erabaki hauek behin betikoak bilakatuko dira, jendaurrean ikusgai dauden epean ez bada erreklamaziorik aurkezten.

II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2023ko irailaren 15etik 2023ko azaroaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonellek, ondorengo dekretuei buruzko azalpenak eskatu ditu: 469, 474, 475, 476, 478, 483, 484, 485, 489, 492, 493, 495, 498, 501, 505, 531, 536, 537, 538, 542, 553, 554 eta 558. Alkateak horien gaineko azalpenak eman ditu.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

483. DEKRETUA	
2023.09.28.	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.968,19 €
Kontzeptua	
Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko iraileko nomina	
Laburpena	
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko irailaren 27an eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak	

eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

484. DEKRETUA

2023. 09.28.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.402,94 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina; 2023ko iraileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko irailaren 28an eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

513. DEKRETUA

2023.10.10

Hartzekodunak	IFZ / IFK
TOLOMENDI	G20326237

Prozedura

2023ko 3. hiruhileko IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
F-89	2023.09.04.	2.023,80 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko urriaren 9an egindako eragozpenezko txostena.

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkerotik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.

- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikusatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.
- Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatiko gastuak.

514. DEKRETUA

2023.10.10

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Serbidorearen segurtasun kopien mantenua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23092281	2023.09.01.	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko urriaren 9an egindako eragozpenezko txostena.

- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

553. DEKRETUA

2023.10.31.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H

ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.946,52 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko urriko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko urriaren 31n eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak

eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

554. DEKRETUA

2023. 10.31.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.402,94 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina; 2023ko urriko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko urriaren 31n eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

565. DEKRETUA

2023.11.13

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RED OFISAT NORDESTE, S.L.U.	B42996389

Prozedura

Frontoiko galdararen mantenu-zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1498115430	2023.09.20.	192,80 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 13an egindako eragozpenezko txostena.

Idazkaritza-kontuhartzaileak jarritako eragozpenak ondorengoak dira: ordainketa-agindua ez dela onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik; izan ere, frontoiko galdararen mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako.

566. DEKRETUA (2023.11.13.)

579. DEKRETUA (2023.11.15)

Hartzekodunak	IFZ / IFK
---------------	-----------

LANDARRI SLU	B20531448
--------------	-----------

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
09988016	2023.09.13.	273,77 €
09988067	2023.09.26.	273,68 €
09988068	2023.09.26.	273,68 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko azaroaren 13an eta 15ean egindako eragozpenezko txostenak.

Goian aipatutako gastuak ez du inolako oinarririk, 2021ean irregularki esleitutako kontratuaren iraupena 2021eko abenduaren 31n bukatu baitzen.

2021eko urtarrilaren 18an egindako esleipen dekretuan ebatzi zen “Anoetako hilerriko lanak aurrera eramateko zerbitzua kontratu txikiaren bidez (B20531448) Landarri, S.L. enpresari esleitzea, bere eskeintzaren arabera ondorengo prezioen truke...”. Dekretu horretan jasotzen zen legez, “Kontratu txikia da, SPKLren 131.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beraz ezingo du urte beteko iraupena baino gehiago izan, aipatu Legearen 29.8. artikuluaen arabera”. Halaber, honakoa jasotzen zen: “Kontratuaren iraupena 2021eko urtarrilean 1etik abenduaren 31^a artekoa izango da, kontratu honek ezin du urtebeteko iraupena baino gehiago izan eta ez da luzagarria izango”.

Gainera, kontratu txiki hori ez zen lehenengoa. Aitzitik, Idazkaritza-kontuhartzaitza honek ikusi ahal izan duenez, badaude beste hainbat kontratu txiki, kontratazio hau gutxienez 2017tik kontratu txikiren bidez kateatzen joan dela adierazten dutenak: 2017ko otsailaren 1eko dekretua, 2019ko otsailaren 12koa, 2020ko otsailaren 5koa...

Hortaz, argi dago urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua dela, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe, eta lizitazio-prozedura egokiaren bidez esleitu gabe, 9/2017 Legearen 131. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2023an, gainera, ez dago oinarri formala ematen dion kontratu irregularrik ere; aitzitik, zerbitzua alde aurreko kontraturik gabe eman da.

567. DEKRETUA

2023.11.13.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
CALEFACCIÓN TARSAT, S.L.	B20765665

Prozedura

Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
03	2023.10.03.	496,10 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko azaroaren 13an egindako eragozpenezko txostena.

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik;

- Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

568. DEKRETUA

2023.11.13.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Serbidorearen segurtasun kopien mantenua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23102319	2023.10.02.	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 13an egindako eragozpenezko txostena.

- Orain arte Sarenet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

569. DEKRETUA

2023.11.13.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
AXA AURORA VIDA SA DE SEGUROS Y REASEGUR	A48464606

Prozedura

Zinegotzien istripu aseguru-poliza (poliza 5900850)

Ordainketa agindua	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1054-2023	2023.10.10.	818,07 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 13an egindako eragozpenezko txostena.

Anoetako Udaleko zinegotzien istripu poliza urtez urte kontraturik gabe eta inolako espedienterik izapidetu gabe ordaindu da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Gainera, beti enpresa berari ordaindu zaio. Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

571. DEKRETUA

2023.11.13.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA	A20145496

Prozedura

Azaroko Berriak Berri maketatzea eta inprimatzea

Aurrekontua	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
53995		1.222,00 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko azaroaren 13an egindako eragozpenezko txostena, 2023ko azaroaren 13an Kultur dinamizatzailerak Antza Komunikazio Grafikoa (A20145496) enpresa (53995 aurrekontua, 1.222,00 eurogatik, azaroko Berriak Berri maketatze eta inprimatzeko zerbitzuagatik) kontratatze egindako kontratu txikien espedientearen kontra, ondorengo arrazoiengatik: Berriak Berri udal aldizkaria maketatze eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua gutxienez 2018tik kontratatzen etorri da eta, gainera, enpresa berarekin, hainbat kontratu txiki kateatuz. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarriko printzipioak urratu dituela; izan ere, urtez urte enpresa berarekin kontratatu du zerbitzu berdina, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Gogorarazten da SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (*“Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga”*), baita Kontratazio Publikoaren Aholku-batzordeak 2020ko martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioaren c) letran jasotakoa ere (*“Gauzak horrela, segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena duten aldizkako errepikapeneko kontratuak, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikiak izan, ez dira kontratu txikitzat hartuko segidako aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin esleitu badira ere”*). Gainera, kontratuaren espedientearen ez da justifikatzen kontratuarekin ase beharrek beharra, ezta baliabide propio nahikorik ez izatea ere. Horrek guztiak urratzen du bai SPKLan bai 1/2021 Jarraibidean xedatutakoa. Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautze eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak urteroko Berriak Berri udal aldizkaria maketatze eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu beharko luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedientearen berri eman du:

- ❖ OMI 2/2023 espedientearen, Alkateak 509. Dekretuz (2023ko urriaren 6koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientearen	
446-E famili esku-hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 004/2023	
FAKT-81	457,54 €
1700	
2023.02.02.	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 009/2023	
FAKT-224	457,54 €
1700	

2023.03.08	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 018/2023	
FAKT-263	484,00 €
1700	
2023.03.31	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 024/2023	
FAKT-412	484,00 €
1700	
2023.05.10	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 031/2023	
FAKT-520	484,00 €
1700	
2023.06.02	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 038/2023	
FAKT-696	484,00 €
1700	
2023.07.07	
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espdte. 446-E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
636-E famili esku-hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa

Faktura zk. 005/2023	
FAKT-82	798,04 €
1700	
2023.02.02	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 010/2023	
FAKT-225	798,04 €
1700	
2023.03.08	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 019/2023	
FAKT-264	844,00 €
1700	
2023.03.31	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 025/2023	
FAKT-413	844,00 €
1700	
2023.05.10	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 032/2023	
FAKT-521	844,00 €
1700	
2023.06.02	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 039/2023	
FAKT-697	844,00 €
1700	
2023.07.07	

Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espdte. 636E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
722-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 133/2022 FAKT-51 1700	400,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espdte. 722E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
725-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2023-F 2 FAKT-134 1436 2023.02.13	235,45 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2023-F3 FAKT-560 1436 2023.06.13.	235,45 €

Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2023-F10 FAKT-561 1436 2023.06.13	235,45 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2023-F20 FAKT-562 1436 2023.06.13	235,45 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2023-F23 FAKT-563 1436 2023.06.13	221,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
SUSANA ELENA CHAPARTEGUI ORTUN 44153322S	Sesiones de terapia familiar 20. artikulua barne- eragiketetarako salbuespenak (espdte. 725E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
708-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 122/2023 FAKT-470	464,97 €

3807 2023.05.31	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 156/2023 FAKT-621 3807 2023.07.03	464,97 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA G20745287	Anoetako esku hartze soziohezitzailea (espde. 708E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
Estimulazio tailerreko saioak	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2023/A06 FAKT-79 2026 2023.02.02.	157,35 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. /A39 FAKT-188 2026 2023.03.06	157,35 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2023/A72	262,24 €

FAKT-275 2026 2023.04.11	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2023/A106 FAKT-395 2026 2023.05.10	104.90 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2023/A141 FAKT-555 2026 2023.06.12	209,79 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2023/A197 FAKT-629 2026 2023.07.03	209,79 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL G20380879	Oroimen saioetako orduak
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK



8.- TOLOSALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAREN MOZIOA, 2023KO AZAROAREN 30EKO GREBA FEMINISTA OROKORRAREN HARIRA.

EH Bildu alderdiko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Tolosaldeko Mugimendu Feministak bidalitakoa:

“...

Euskal Herriko Mugimendu Feminista aspalditik salatzen ari zena azkartu zuen pandemiak, eta zaintza krisia azaleratu eta azkartu egin zen urte horietan. Egoera ikusita, Denon Bizitzak Erdigunean plataformak zaintza sistema iraultzeko prozesua abiatu zuen 2022. urtean, eta 2023ko azaroaren 30ean greba feminista orokorra egitea erabaki dugu zaintza eskubide kolektiboaren alde.

Testuinguru horretan, Anoetako Udalari eskatu nahi diogu 2024.urterako aurrekontu sailetan onar dezala konpromiso hau betetzeko behar den diru partida, eta egikaritu dezala honako eskaera hau:

1- Anoetako zaintza sistemaren diagnostiko erreala eta osatua egitea, eta horri erantzun dion zaintza plan feminista eta integral bat osatzea urtebeteko epean.

...”.

Behin mozioa irakurrita, Alkateak jakinarazi du 2024. urterako Aurrekontu Orokorretan zaintza inguruko azterketa egiteko aurrekontu-partida aurreikusi dela.

Horiek horrela, Udalbatzak EH-Bilduk aurkeztutako mozioa bozkatu du eta hau izan da emaitza:

EBAZPENA

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea), Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea) eta Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 7 bozka.

ABSTENTZIOAK: Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea), Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea), Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea). Guztira, kontrako 3 abstentzio.

Ondorioz, gehiengoz onartua izan da mozioa.

Bozketa egin ondoren, Amaia Urkola zinegotziak EAJ-PNV taldeko bozeramaileari galdetu dio ea zergatik abstenitu diren eta honek, Nuria Carbonellek, erantzun dio, diagnostikoa egitearekin ados badaude ere, grebarako deia ez dutela egingo.

9.- EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN MOZIOA, PENTSIODUN GUZTIEK GUTXIENEZ 1080 EUROKO DIRU-SARRERAK IZATEA BERMATZEKO, 14 ORDAIN SARITAN.

EH Bildu alderdiko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bidalitakoa:

“...

EHPM-MPEH mozioa. Udaletan, foru-aldundietan eta EUDElen aurkezteko

Moción del EHPM-MPEH a presentar en ayuntamientos, DDFF y EUDEL

EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du ANOETako Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: **pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.**

El EHPM (Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria) nos dirigimos a ustedes para que en el pleno del ayuntamiento de ANOETA procedan, si así lo consideran, a la APROBACION de una moción apoyando una de nuestras reivindicaciones fundamentales: **garantizar que todas las personas pensionistas dispongan de unos ingresos mínimos de 1080 euros en 14 pagas.**

Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:

"EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu. "

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-

Adjuntamos al presente escrito, el informe resumido que hemos elaborado y presentado en la comparecencia ante la Comisión de Políticas Sociales y Juventud del Parlamento Vasco en la que solicitamos y justificamos dicha reivindicación, cómo hacerla efectiva y la estimamos de su coste. El informe comienza con dicha demanda:

"Con el presente informe, elaborado por el EHPM-MPEH pretendemos impulsar nuestra demanda inmediata de establecer para el año 2023 la Pensión Mínima en 1080 euros. Esta demanda la dirigimos tanto al gobierno del Estado como a los gobiernos de la CAV y Navarra; a estos últimos además les demandamos que, mientras no se fije la pensión mínima que hoy está en 783 euros en esa cantidad, complementen dicha pensión mínima hasta 1080 euros en catorce pagas.

Con este informe damos un paso más en la explicación de nuestra demanda y calculamos una estimación económica del presupuesto necesario en la CAV y Navarra."

Además, en dicho informe (como podrán ver) manifestamos que esta demanda es una necesidad social urgente y de justicia porque las instituciones públicas tienen la obligación de adoptar las decisiones precisas para garantizar a la ciudadanía unas condiciones de

baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errebalorizatzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea. "

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonak ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi

vida dignas; condiciones que en el caso de las personas mayores y pensionistas que no disponen de ingresos procedentes de su trabajo pasan por garantizar unos ingresos mínimos suficientes.

El establecimiento de la pensión mínima de 1080 euros reduciría considerablemente la brecha de género en pensiones. Las consecuencias de la NO revalorización de las pensiones en función del incremento del coste de la vida son manifiestas como se puede ver en el Informe pg. 13: *"...constatamos que en los últimos años (2011 a 2023) el SMI se ha incrementado de 641,40 euros a 1080 euros y sin embargo la pensión mínima sólo ha aumentado de 601,40 euros a 783 euros. Las pensiones son sin ninguna duda salario diferido y su cuantía está directamente relacionada con los salarios que se perciben por lo que también la pensión mínima debe de tener como referencia el SMI. Es inaceptable que en 2011 la PM fuera el 93,7% del SMI y en 2023 sea el 72,5%."*

En el actual contexto de crecimiento exponencial del coste de la vida cada vez más pensionistas ven truncadas sus posibilidades de acceder a una vivienda saludable y adecuada a sus necesidades, una alimentación sana, garantizar su salud y la atención efectiva para paliar sus necesidades de atención a la dependencia etc. Hoy 167.718 personas pensionistas en la CAV tienen ingresos por pensiones por debajo de los 1080 euros, la inmensa mayoría de las cuales son mujeres.

La pensión mínima en todas sus variables tiene nombre de mujer. Es algo que se constata en la brecha de género que tiene como antecedente la desigualdad de salarios y la asignación unilateral de las mujeres al trabajo no remunerado o mal pagado en el ámbito de la reproducción y los cuidados.

Esta reivindicación de 1080, tiene la legitimidad que le otorgan las decenas de miles de personas que han participado y participan en nuestras movilizaciones desde hace más de cinco años.

Concluimos que no hay razón ni económica ni política para no hacerlo y no podemos esperar un día más.



ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, ANOETAKO udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:

Por ello demandamos del pleno de la corporación municipal de ANOETA la decisión de:

1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

1.- Demandar al Gobierno y Parlamento de la CAV que complementen hasta 1080 euros por 14 pagas la pensión mínima de las personas pensionistas con efectos retroactivos a enero de 2023.

2 EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia.

2.- Enviar al Gobierno y Parlamento de la CAV notificación de la decisión adoptada en el pleno de este ayuntamiento.

Euskal Herria 2023ko Urria- Octubre de 2023

...”.

Horiek horrela, Udalbatzak EH-Bilduk aurkeztutako mozioa bozkatu du eta hau izan da emaitza:

EBAZPENA

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Eloseggi Artola (EH Bildu taldea), Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea) eta Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 7 bozka.

ABSTENTZIOAK: Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea), Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea), Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea). Guztira, kontrako 3 abstentzio.

Ondorioz, gehiengoz onartua izan da mozioa.

Bozketa egin ondoren, Amaia Urkola zinegotziak EAJ-PNV taldeko bozeramaileari galdetu dio ea zergatik abstenitu diren eta honek, Nuria Carbonellek, erantzun dio Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza noiz ordainduko ote den zain daudela, izan ere, dirulaguntza handiagoa izan daitekeelako ustea baitute.

10.- AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA.

EH Bildu eta EAJ-PNV alderdietako udal taldeek EUDELeK bidalitako mozioa aldatu dute, herriko egoerara egokitzeko, eta honako mozio adostu hau aurkeztu dute:

“...

ADIERAZPEN INSTTUZIONALA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezinena eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskak eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonek eta emakumeek harreman horietan duten rolaren irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larrienek eraso sexualetara eta fisikoetara eraman dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Tolosaldean aurrean ireki da Andragora Emakumeen Etxea, emakumeen ahalduntzea eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko, sareak eraikitze, eraldaketa sozialerako eta indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko espazioa. 16 urtetik gorako emakumeei arreta eta aholkularitza psikologikoa eta juridikoa eta ahalduntzeko dinamikak eskainiz.

Baina azken urte honetan argi geratu da haurrak eta gaztetxoak ere behar bereziak dituztela erlazio eta harreman egokiak eraikitzen laguntzeko eta indarkeria kasuak identifikatu eta aurre egiteko.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta, **Anoetako Udalak** konpromiso hauek hartzen ditu:

- **Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz.**

- Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea, koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea eta ebaluatzea
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.
- Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak.
- Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.
- Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, arratsaldeko 19:00etan Anoetako plazan elkarretaratzean parte hartzeko eta 26an Mikelasagasti Auditorioan 18:30ean izango den saioan, Dorleta Kortazarrek eskainiko duen '80 amandre' helduentzako ipuin kontaketa.

...”.

Horiek horrela, Udalbatzak aurkeztutako mozioa bozkatu du eta aho batez onartu du.

GALDE-ERREGUAK

11.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago galde erregurik.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:38tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.



Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino